



Prensa oharra

Elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren aldeko konpromisoa

EROSKI-K ANIMALIA ONGIZATEAREN ZIURTAGIRIA ESKURATU DU BERE MARKAKO HARAGI GUZTI-GUZTIETAN

- Lehen indioilarraren eta untxiaren haragiak baldin bazuten, orain oilaskoak, txerriak eta Aragoiko axuriak ere badute
- EROSKI konprometitzen da librean diren oiloen arrautzak bakarrik erabiltzera bere markako produktuetan 2025etik aurrera
- Welfair™ animalien ongizatea egiaztatzeko darabilen ziurtagiriak bermatu egiten du animaliek elikadura, bizitoki eta osasun ona daukatela eta jokabide naturala izateko aukera ere bai
- Tokian-tokian nekazaritzako produktuak sortzen dituen sektorea dibertsifikatua egotea eta iraunkortasunarekin konpromisoz jokatzeko estrategikoa da EROSKIrentzat

Elorria (Bizkaia), 2021eko urriaren 21a.- [EROSKI](#) aurrera egiten ari da elikadura iraunkorragoaren aldeko bidean, eta oraingoan, animalien ongizatea bermatzen duen ziurtagiria eskuratu du marka propioarekin tokian-tokian merkaturatzen duen haragi zuri guzti-guztietan. Lortutako azken ziurtagiriak indioilarrarena, untxiarena eta oilasko guztiena izan da; lehendik zituzten EROSKI Natur txerriak eta EROSKI Natur Aragoiko axuriak.

[Welfair™](#) zigiluak animalia ongizatea sustatzen du Animal Welfareren printzipioen estandar zorrotzetan oinarrituta; hor sartzen dira elikadura, bizitokia, osasuna eta jokabide naturala. Ziurtagiria eskuratzeko, aldi behin abeltegi eta hiltegiatara joaten dira ikuskapenak eta gainbegiraketak egitera. Eta urtero ikuskaritzak egiten dituzte animalia ongizatearen gainean European dauden protokoloetan prestatutako aztertzaileek. IRTA erakundetik ([Nekazaritzako Elikagaiak eta Teknologia Ikertzeko Institutua](#)) eta [Neiker](#)-etik egiten dute formazio eta jarraipen hori.

"Animaliaren ongizatea da gure hornitzaileei baldintzen pleguan jartzen diegun ardatz aipagarrienetako bat, eta bereziki eskatzen diegu gure markarako aritzen direnei. EROSKIn ahalegintzen gara alternatibak ematen elikadura orekatua eta ardurazkoa eraman nahi dutenentzat, eta, multzo horretara gehitutako azkenekin, kontsumitzaileari elikadura sail zabal bat eskaintzen diogu zigilu horrekin", azaldu du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Elikadura osasungarria sustatzea dago [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak dituen konpromisoetan](#). Xede horretan, lagun handia da haragi zuria; izan ere, *"kalitate handiko proteina dute kopuru handitan eta gantz gutxi. Gainera, sukaldaritzaren alorrean aukera pila bat zabaltzen dute. Bereziki aproposak dira haurren elikadurarako"*, azaldu du Martinez Berriochoak.

Librean diren oiloen arrautzak 2025ean

EROSKIk jakinarazi du konpromisoa hartzen duela karioletan diren oiloen arrautzarik ez erabiltzeko bere markako produktuen osagaietan 2025. urtetik aurrera.

Konpromiso berri horetaz gainera, lehendik hartua du 2024rako bakarrik libre bizi diren oiloen arrautza freskoak merkaturatzeko, ez karioletan edo sistema konbinatuetan. Gaur egun, dagoeneko saltzen dituen arrautzen %57 lurzoruan, landan edo ekologikoan bizi diren oiloenak saltzen ditu, eta eskualderen batean (hala nola Katalunian) %100era iritsi da.

Animalia Ongizatearen ziurtagiria duen eskaintza zabala

Urte hasieran, animalia ongizatearen zigilua eskuratu zuen EROSKIk bere markan EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan saltzen duen esnerako. 2020an, berriz, ziurtagiria eskuratu zuen oiloetan, txerrietan eta EROSKI Natur Aragoiko axurian. Iazko beste mugarri bat EROSKI Natur landako oilaskoa atera zenekoa izan zen.

Horretaz gainera, Welfair zigilua eskuratzeko bidean da arrautza freskoetan; dagoeneko, EROSKI markako lurzoruko oilo arrautza guzti-guztiak ziurtatuak ditu, eta EROSKI Natur landa arrautzetako batzuk ere bai. Iaz, arrautza ekologikoak ere txertatu zituen EROSKI Natur Bio markan.

Bestalde, akuikulturako GlobalG.A.P. ziurtagiria du EROSKI Natur hazkuntzako arrainetan; horrek arrainen animalia ongizatea bermatzen du baldintza zehatz eta zorrotz batzuekin, bai hazteko orduan eta bai garraiatua eta hila izan denean.

Ingurumenaren errespetua

EROSKIk konpromiso sendoa du ingurumena errespetatzeko, eta ekimen askotarikoak lantzen ditu bere jarduerak inguru hurbilean duen eragina murrizteko. Produktu iraunkorrako merkaturatzea, ontzien eta bilgarrien ekodiseinua lantzea, baliabideak modu iraunkorrean erabiltzea, ingurumenaren gaineko arrastoa murriztea, hondakinak ekonomia zirkularraren ereduarekin kudeatzea, bioaniztasuna zaintzea... Horiek guztiak betebeharrak saihetsezinak dira EROSKIrentzat, eta halaxe jasoak ditu *Osasunaren eta Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoetan*.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboa
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)